

# DEONTOLOGIA ETA HEDABIDEAK

## 1. GAIA: KAZETARITZA JARDUERAREN ETIKA ETA DEONTOLOGIA

### SARRERA: KONTZEPTUAK

#### a) Morala:

- Etimologikoki latinetik dator: *mores* (ohitura).
- Hainbat definizio daude:
  - Horieta batek pertsona baten, talde edo klase sozial baten, edo herri edo gizarte jakin baten jokabide indibiduala orientatzen duten ohitura, sinesmen, balio eta arauen multzo gisa aurkezten du.
  - Arau idatziak edo idatzi gabeak izan daitezke: Arau tazituak –sozialki ezarritakoak– (une edo garai batean ‘politikoki zuzena’ deritzona) edo legeek edo dekretuek ezarritakoak.
  - Denbora eta espazio jakin batean jarduten du, eta, beraz, maiz aldatzen da.

#### b) Etika:

- *Ethos* (portaera, ohitura) grezierazko hitzetik dator. Batzuek moralarekin parekatzen dute.
- Morala aztertzen duen eta haren arabera giza portaera ona eta txarra zein den arrazionalki zehazten saiatzen den filosofiaren adarra, bi mailatan:
- **Pertsonala edo indibiduala:** pertsona bakoitzarena => Ezin da inposatu.
- **Soziala:** adibidez, jarduera jakin batean (etika profesionala) jardunbide egokiaren gidari izateko.
- (Deontologiaren historian moral eta etika terminoak sinonimotzat hartu dira, definizio eta garapen praktiko berari lotuta).

#### c) Kazetaritza-etika:

- Kazetaritzan zuzen ala gaizki egindakoari buruzko arau, orientabide, argibide, norabideak eta abar dira.
- Idatzita egon daitezke edo isilbidez ezar daitezke.
- Kazetaritzako profesionalak berek aldarrikatu edo landu ditzakete, baina baita lanbidez kanpoko beste pertsona batzuek ere (talde politiko edo sozialak, medikuak, ...).

#### d) Deontologia:

- Etimologikoki, terminoa "betebeharraren tratatua edo zientzia" da, grezierazko bi hitzek osatzen baitute: *deontos*, betebeharra esan nahi duena, eta *logos*, diskurtsoa edo hitzarmena.
- Jeremy Benthamek erabili zuen lehen aldiz bere *Deontology or the Science of Morality* ("deontologia edo moraltasunaren zientzia") lanean, 1834an.
- Etikaren eremuko arau idatziak dira.
- Jarduera profesional jakin bat arautzen duten eginbeharren multzoa.
- Jardueraren partaideek beraiek zehaztuak, jarduera gidatzeko.
- Lanbide bateko profesional guztiek onartu behar dituzte, edozein dela ere haien ikuspegia edo etika pertsonala.
- Zenbait lanbidetan, arauak ez betetzeak hainbat zigor mota dakartza

#### e) Kazetaritza-deontologia:

- Kazetaritza behar bezala egiteko moduari buruzko arau edo jarraibide etikoak dira.
- Arau horiek idatzita egon behar dute.
- Kazetaritza jardueran parte hartzen duen kolektibo batek edo gehiagok ezarriak eta onartuak: kazetariak, zuzendariek, editoreak...

- Kazetaritza deontologiaren kasuan, ia inoiz arau zigortzaileak ez direnez, orientabide etikoak baizik, betetze maila txikiagoa dela nabarmentzen da, adibidez, mediku edo abokatu lanbideekin alderatzen badugu.

#### f) Autorregulazioa:

- Lanbide baten jarduerarekin zerikusia duten arau, ekimen, akordio, erakunde, kode eta mekanismoen multzoa da, esku hartzen duten subjektu edo profesionalak beraiek finkatutakoak. Haiek betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta beren jarduna egokitzat jotzen diren balio eta arau etikoetara egokitzen dela bermatzera bideratuak.
- Askotan, autoerregulazioa Estatuak jarduera jakin bat lege eta erregelamendu bidez arautzearen alternatiba gisa planteatzen da.

### 1. KAZETARITZA ETIKAREN OINARRIAK

#### LEGEGINTZA-IZAERA DUTEN OINARRIZKO DOKUMENTUAK:

##### Frantziako Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena (1789):

- Prentsa eta adierazpen askatasunak utziezinezko eskubide gisa aldarrikatu ziren lehen aldiz: "Pentsamenduen eta iritzien komunikazio askea gizakiaren eskubide baliotsuenetako bat da; ondorioz, herritar orok askatasunez hitz egin, idatzi eta inprimatu dezake" (art. 11).

##### Amerikako Estatu Batuetako 1787ko Konstituzioari egindako lehen zuzenketa (1791):

- Horretan xedatzen da Kongresuak ez duela legerik egingo hitz egiteko edo inprimatzeko askatasuna murrizteko.

##### Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948).

19. artikulua dionez, "Gizabanako guztiak dute iritzi eta adierazpen askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinesmena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa".

##### Nazio Batuen Erakundearen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966):

1. Inor ezin izango da gogaitua izan bere iritzien ondorioz.
2. Pertsona orok du adierazpen askatasunerako eskubidea; eskubide horren barruan sartzen da era guztietako informazioak eta ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko askatasuna, mugatzat hartu gabe, ahoz, idatziz, inprimatuta edo artistikoki, edo berak aukeratutako beste edozein prozeduraren bidez.
3. Eskubidearen erabilerak betebeharrak eta erantzukizun bereziak dakartza. Ondorioz, murrizketa jakin batzuen mende egon daiteke; murrizketa horiek, ordea, legeak berariaz finkatuta egon beharko dute, eta beharrezkoak izan beharko dute honako hauetarako:
  - a) Besteen eskubideak edo ospea errespetatzen direla bermatzeko;
  - b) Segurtasun nazionala, ordena publikoa edo osasun edo moral publikoa babesteko.

##### Espainiako Konstituzioa (1978): 20. artikulua, Adierazpen askatasuna:

20.1. Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira:

- a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko (**adierazpen askatasuna**).
- d) Egiazko informazioa hedatu eta hartzeko, edozein hedabide dela medio. Legeak, askatasun hauek bideratzeko, kontzientzia klausula eta sekretu profesionalerako eskubideak garatuko ditu (**informazio askatasuna**).

## 2. KAZETARITZA ETIKAREN PRINTZIOAK

(Hedabideen jokaera etikoa ikastaroan zehar aztertzeko  
gehienbat egokiak direnak nabarmentzen dira)

Egiazkotasuna / Egia / <i>Objetibotasuna</i>
Inpartzialtasuna / neutraltasuna / <i>Objetibotasuna</i>
Ez diskriminatzea jatorri, etnia, genero, erlijio... direla-eta
Iturrien identifikazioa / aipamen zehatza
Gertakarien egiaztapena / Iturri anitzen arteko kontrastea
Intimitatea / pribatutasuna errespetatzea –bereziki adin txikikoena–
Pertsonen norberaren irudia errespetatzea
Pertsonen ohorea errespetatzea / ez difamatu
Pertsonen duintasuna errespetatzea
Ez kalumniatu / iraindu
Errugabetasun presuntzioa errespetatzea
Informazioa eta iritzia bereiztea / Balio-iritzirik ez ematea
Informazioa eta publizitatea bereiztea
Informazioaren zehaztasuna
Informazio osoa eskaintzea/dagokion testuinguruan
Interes publiko/orokorreko informazioa ez ezkutatzea
Ez manipulatu / Ez desitxuratu / Ez deformatu
Errespetatu biktimen eta haien hurbilekoen atsekabea
Informazioa lortzeko bide zuzenak
Zurrumurrak zabaltzea saihestea
Sentsazionalismoa / ikusgarritasuna saihestea
Hizkera itsusi / zatarraren debekua
Estereotipoak / topikoak saihestea
Iturriei buruzko sekretu profesionala / <i>off the record</i> -aren errespetua
Adierazpen- eta informazio-askatasuna defendatzea
Indarkeria arbuiatzea
Plagioaren debekua / Jabetza intelektuala errespetatzea
Kazetaritza lanarengatik hirugarrenen ordainketa ukatzea
Kazetarien independentzia/Kanpoko presioak baztertzea
Giza eskubideen defentsa
Kazetarien erantzukizun soziala
Errakuntzak / okerrak zuzentzea
Kazetari izaera ez erabiltzea norberaren edo hurbilekoentzat probetxua lortzeko
Kontzientzia klausula
Interes-gatazka saihestea
Erantzuteko/zuzentzeko eskubidea eskaintzea
Kazetaritzan aritzeko bateraezintasunak

### 3. DOKUMENTU DEONTOLOGIKOEN TIPOLOGIA

#### Idatzizko dokumentuak:

- **Kode etikoak/deontologikoak:** Adibidez: FAPE ren Kazetaritza Lanbidearen Kode deontologikoa.
- **Printzipio editorialak:** Adibidez: *La Vanguardia* egunkariaren printzipio editorialak.
- **Estilo/Gida/Erredakzioko (esku) liburuak:** Adibidez: *Berría* egunkariko estilo liburua.
- **Erredakzioko estatutuak:** Adibidez: EITBko Erredakzio Estatutua.
- **Gomendioak:** Adibidez: FAPE ren katrastofe egoeren informazio tratamenduari buruzko gomendioak.
- **Jarraibideak:** Adibidez: BBC ren jarraibide editorialak.
- **Gidak:** Adibidez: *El País* egunkariko erabiltzaileek sortutako edukiak moderatzeko arauak.
- **Adierazpenak:** Adibidez: Bilboko Adierazpena (FIP, 1997).
- **Manifestuak:** Adibidez: Galderarik gabeko prentsasurekoen aurkako manifestuak.
- **Ebazpenak:** Adibidez: Europako Kontseiluaren 1003 Kazetaritzaren etikari buruzko Ebazpena (Europako Kazetaritzaren Deontologia Kodea).

#### Figurak/organoak/erakundeak:

- **Kontseilu editorialak:** Adibidez: *La Vanguardia* egunkariko kontseilu editoriala.
- **Hedabideen erabiltzaileen babeslea:** Adibidez: Adibidez: *El País* egunkariko Irakurlearen Babeslea.
- **Prensa kontseiluak:** Adibidez: Kataluniako *Consell de la Informació*.
- **Deontologia kontseiluak:** Adibidez: FAPEn Deontologia Kontseilua.
- **Ikus-entzunezko kontseiluak:** Adibidez: Andaluziako Ikus entzunezkoen Kontseilua.

#### Kode deontologikoa:

- Jarduera bati (profesionala, politikoa, ikerketakoa ...) buruzko irizpideak, arauak eta balioak biltzen dituen dokumentua da.
- Jarduera gauzatzen duten berek formulatu eta bere gain hartzen dute.
- Lanbide liberalek aspalditik dituzte, eta arauak betetzen direla ikuskatzeko ohikoa da elkargo profesionalen jarduna.
- Gero eta ohizkoagoak dira mota guztietako jardueretan.

#### Kode deontologikoen garapen historikoa:

- Medikuen Juramentu Hipokratikoa Historiaren kode deontologikoaren lehen adibidetzat hartzen da.
- Tradizioaren arabera, K. a. V. mendean bizi izan zen Hipokrates mediku greziarrak idatzi zuen, edo geroago, bere diszipulu batek.
- Hiru ideia nagusi nabarmendu daitezke, eta horietako bat, bitxia bada ere, kazetaritza kode gehienetan ere jasota dago:
  - Pazientearen bizitza zaintzea*
  - Intimitatea errespetatzea*
  - Minik ez egitea.*

- Galeno, mediku ospetsua, heleniar jatorrikoa bera ere, Erroma inperialean bizi izan zena, gure garaiko II. eta III. mendeen artean, Hipokratesen lanarekin harremanetan jarri zen, bere karreraren zehar bere erreferente nagusia izango zena, medikuntza gaur egun lanbidetzat hartzen denaren antzeko zerbeit bihurtu arte.
- Edukia egokitu egin da denboran zehar, askotan lurralde jakin batean nagusi diren bizi baldintzak eta kontzeptu etikoen arabera.

#### **Kazetaritzaren kode etiko-deontologikoak gaur egun:**

- Azken helburua informazio zorrotza eta kalitatezkoa lantzea da, jokabide jarraibide edo orientabide batzuk eskainiz.
- Askotarikoak dira hedadurari, edukiari edo aplikazio eremuari dagokionez.

#### **Kazetaritzaren etika-kodeen aurrekariak:**

- Benjamin Harris ek Amerikako lehen aldizkaritzat hartzen den *Publick Occurrences Both Foreing and Domestick en Printzipio Deklarazioa* (1690, Massachusetts) argitaratu zuen lehen zenbakian –eta bakarrean– agintari kolonialek debekatu baino lehen.
- Adierazpen horrek antzekotasun asko zituen egungo arau deontologikoekin:
  - Albisteak egiazkotasunez eta zehaztasunez jasotzea eta zabaltzea
  - Iturrietara jotzea
  - Akatsak / okerrak zuzentzea
  - Zurrunmuru faltsurik ez zabaltzea...
- Hau da, ia aldi berean sortu ziren lanbidea eta haren arauak.
- XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, egunkari nagusiek beren printzipio editorialak eta kazetaritza arauen adierazpen formalak ezagutzera emateko praktika hedatu zen.
- Adierazpen horiek egunkari bateko editoreak (jabea) erredakzioko langileei emandako argibide multzo bat baino ez ziren, etika printzipioen eta aholku praktikoen nahasketa modukoa albisteak nola landu behar ziren aurkeztuz.

#### **Kazetaritzaren berezko lehen kodeak:**

- Kazetaritza etikaren kodearen lehen adibidea, aipatutako zentzuan (irizpideak, arauak eta abar biltzen dituen dokumentua), 1900. urtean agertu zen Suedian, bitxia bada ere, ez editoreen edo kazetari profesionalen ekimenez, baizik eta prentsa klubak eraginez (egunkariak irakurtzeko zaletasuna eta horien edukiei buruzko eztabaida egin nahi duten pertsonen elkarte modukoak).
- Agian arrazoi horregatik, kazetaritzaren baitan sortu ez zelako, ez zion oro har Suediako prentsak jaramonik egin kodeari.
- Lehenengo kode eraginkorrak hainbat arrazoiengatik sortu ziren, haiek egiteko ekimena hartu zuen kolektiboaren arabera (editoreak edo erredakzioetako profesionalak): kazetaritza profesionalagoa egiteko, lege murrizketak saihesteko, profesionalak enpresa presioetatik babesteko, etab.
- Sortutako lehen dokumentu eraginkorra Kansas ko Egunkarien Etika Kodea izan zen, Editoreen Elkarteak 1910ean egina.
- 1918an, Frantziako Kazetarien Sindikatu Nazionalak *Kazetarien lanbide betebeharren Agiria* ezagutarazi zuen, kazetarien ekimenez sortutako lehen dokumentua.

- AEBetan, kazetarien kolektibo batek sortutako lehen kodea (gaur egun profesionalen artean ezagunena izaten jarraitzen duena) 1926ko Kazetari Profesionalen Elkartearen (SPJ Sigma Delta Chi Etika Kodea izan zen.

### **Kazetaritzaren kode etikoen aplikazio-eremua:**

- Eraginaren arabera:
  - Nazioartekoak: UNESCO, FIP, Europakoa...
  - Nazio estatu mailakoak: Alemania, AEB, Espainia...
  - Beste lurralde mailakoak: Katalunia, Quebec...
  - Hedabideen barne mailakoak: New York Times, Le Monde, El País...
- Sustatzen duen erakundearen arabera:
  - hedabide batek
  - talde mediatiko batek
  - kolektibo batek
  - prentsa kontseilu batek...
- Kazetaritza motaren arabera:
  - orokorra,
  - ekonomikoa,
  - zientifikoa,
  - kirolekoa
  - zerbitzuetakoa...
- Euskarri motaren arabera: agentziak, prentsa idatzia, telebista, ikus entzunezkoak, internetekoa...
- Alderdi jakin baten arabera: haurtzarora, osasuna, ekologia, gerrako erreporterismoa...

### **Nazioarteko kodeak:**

- Kazetaritzaren Etika Profesionalaren Nazioarteko Printzipioen Adierazpena (UNESCO): 1978tik aurrera, munduko alde guztietako 400 mila kazetari ordezkatzeko zituzten erakunde nazionalen eta lurralde ezberdinetakoen kontsulta bilerak antolatu ziren, eta 1983an amaitu ziren, **Kazetaritzaren Etika Profesionalaren Nazioarteko Printzipioen Aitorpenarekin**.
- Printzipio horiek nazioarteko oinarrizko kodearen lehen saiakera gisa aurkeztu ziren, bai eta nazioko eta eskualdeko kazetaritza etikaren kodeetarako inspirazio iturri gisa ere: gaur egungo kodeen oinarri komunak adierazten dituzten printzipio batzuk. Erakunde profesional bakoitzak modu autonomoan sustatu eta garatu ahal izango lituzke printzipio horiek.
- **Nazioarteko Kazetarien Federazioa (FIP):** Kazetarien Jardunbideari buruzko Printzipioen Adierazpena onartu zen 1954an.
- Bederatzi puntutan kazetarien jokabide profesionalaren oinarrizko arauak biltzen dituen dokumentua da.
- **Europako Kontseiluaren 1003 Ebazpena, Kazetaritzaren Etikari buruzkoa (Kazetaritzaren deontologiaren Europako Kodea):** Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarrak 1993an onartu zuen, Kontseilu horretako estatu kide guztietan aplikatzea gomendatuz.

- Bertan, komunikabideei eskatzen zaie "adierazpen askatasuna, eta herritarrek benetako albisteak eta iritzi zintzoak jasotzeko duten oinarrizko eskubidea ziurtatuko dituzten printzipio deontologiko zorrotzak behatzeko konpromisoa har dezatela".

#### **Nazio-estatu mailako kode garrantzitsu batzuk:**

- **Frantzia**, Eskualdeko Eguneroko Prentsaren Sindikatuaren Arau eta Usadioak izan ziren onartuak 1988an.
- **Erresuma Batuan**, Prentsaren Erreklamazioen Batzordeak (PCC) 1991an egin zuen britaniar prentsa idatzirako Kazetaritza Praktikaren Kodea. 2014an, editore britainiarrek sortutako beste erakunde batek ordezkatu zuen PCC Batzordea: The Independent Press Standards Organisation (ipso), kode hori aldaketa txiki batzuekin hartu zuena.
- **Katalunian**, Kazetaritza lanbidearen Printzipioen Adierazpena Kazetarien Elkargoaren ekimenez sortu zen 1992an, Estatuko kazetaritza etikaren lehen kode kolektiboa izan zena (Kataluniako kazetari guztiengan eragina zuena).
- **Espainiako** Kazetarien Elkarteen Federazioak (FAPE) Kazetaritza lanbidearen Kode Deontologikoa sortu zuen 1993an.

#### **Kazetaritza kodeen alderdi positiboak:**

1. Kazetarien aldetik kontzientzia moral kolektiboa sortzen dute: kodeetan jasotako balio eta betebeharrak neurri desberdinean bete ditzakete, baina ezin dute haien ezjakintasuna aitzakitza hartu.
2. Herritarrek kazetariengan duten konfiantza eta aintzatespen publikoa bultzatzen dute, jakin badakitelako kazetaritza lanbideak irizpide moral batzuen arabera jokatzeko duela, gizartearen zerbitzura, eta gizartearen kalitatezko informazioa jasotzeko eskubidea bermatuz.
3. Profesionalen osotasuna eta independentzia babesten laguntzen dute kanpoko presioetatik, presio politiko edo ekonomikoetatik.
4. Kode deontologiko bat edukitzeak aukera ematen du baieztatzeko kazetaritzako profesionalek helburu laudagarri baten alde egiten dutela lan, hau da, herritarren interes orokorrari zerbitzatzea, eta ez soilik onura ekonomikoa lortzeko.

#### **Kazetaritza kode deontologikoei egin ohi zaizkien kritikak:**

1. Batzuen ustez, kazetarien eta hedabideen adierazpen askatasuna murrizteko balio dezakete, guztiek bete beharreko jokabide arauak proposatzean.
2. Era berean, orokortasun eta anbiguotasun maila handia duenez, eta zehaztasun falta duenez, interpretazioak jokabide desberdinak onartzeko aukera ematen du.
3. Kritikan hedatuena: praktikan eraginkortasun eskasa dutela aipatzen da, batez ere urraketen aurrean neurri zigortzailerik ez dagoelako.
4. Agian kritikan garrantzitsuenak, kodeetan islatu ohi diren arazo etikoen pertzepzio indibidualistari egiten zaiola erreferentzia da: arau gehienak kazetariengana zuzentzen dira, zer egin behar duten edo zer ez duten egin behar adieraziz, eta ahaztu egiten da beste instantzia batzuetan ematen direla komunikabideen ildo edo norabide politiko nagusiak, eta ia beti kazetaria beheragoko mailetan geratzen dela erabakiak hartzeko garaian.